## LANKIDETZA HITZARMENA, BILBAO BIZKAIA MUSEOAK S.L.ren ETA BILBOKO UDALAREN KULTURA SAILAREN ARTEKOA

### PARTE HARTZAILEAK

ALDE BATETIK, Gonzalo Olabarria Villota jauna, Bilboko Udalaren Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria, udal horren izenean eta ordezkari modura. Helbidea: Ernesto Erkoreka plaza 1, 48007 Bilbo; IFZ: P-4802400-D.

ETA BESTETIK Sorkunde Aiarza Begoña andrea, Bilbao Bizkaia Museoak SLren izenean, erakunde horretako koordinatzailea baita. Helbidea: Mirasol Kondearen kalea, 2 - 48003 Bilbo; IFZ: B95746368.

### ADIERAZITAKOA

I. Bilbao Bizkaia Museoak SL Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak erdibana sortutako eta parte hartutako entitatea dela eta haren xedea Bilboko Artelan Berreginen Museoa eta Euskal Museoa kudeatzea dela. Museo horietako bildumen zabalkundean eta iraunarazpenean lan egiten du, uriko eta Bizkaiko kultur bizitza sustatzeko.

II. Bilbao Bizkaia Museoak SLren lan-eremua arlo kultural batean garatuko da eta Bilboko Udalak hori babestu eta sustatu nahi du berezko programen bidez, baina bai administrazio publikoek sortutako erakundeen ekimenei laguntza emanez ere, eta batez ere, Udala, osorik edo zati batean, titularra denean edo erakunde horiek sortzea sustatu duenean.

## CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE BILBAO BIZKAIA MUSEOAK S.L. Y EL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE BILBAO

### REUNIDOS

DE UNA PARTE, D. Gonzalo Olabarria Villota, Concejal Delegado del Área de Cultura del Ayuntamiento de Bilbao, actuando en nombre y representación de este Ayuntamiento, que tiene su domicilio en Plaza Ernesto Erkoreka, nº 1, (48007 Bilbao) y el NIF P-4802400-D.

DE OTRA PARTE, Dª. Sorkunde Aiarza Begoña, en nombre y representación de la entidad Bilbao Bizkaia Museoak, S.L., de la que es Coordinadora; la entidad tiene su domicilio en calle Conde Mirasol, 2 (48003 BILBAO) y NIF B95746368.

### EXPONEN

I. Que Bilbao Bizkaia Museoak S.L. es una entidad creada y participada a partes iguales por el Ayuntamiento de Bilbao y la Diputación Foral de Bizkaia, que tiene como objeto social gestionar el Museo de Reproducciones Artísticas de Bilbao y el Euskal Museoa/Museo Vasco de Bilbao, trabajando tanto en la conservación y difusión de sus colecciones, como en el impulso de la vida cultural en la ciudad y en Bizkaia.

II. Que el ámbito de trabajo de Bilbao Bizkaia Museoak, S.L. se desarrolla en un sector cultural que el Ayuntamiento de Bilbao está decidida a respaldar y potenciar mediante programas propios, pero también apoyando las iniciativas de las entidades creadas por las Administraciones Públicas para este fin y, en especial, aquellas de las que el Ayuntamiento es titular, en todo o parte, o ha promovido a su creación.

III. Horretarako, entitateak bere jarduerak antolatuko ditu 2020an, Hitzarmen honen eranskinean dauden proiektuaren eta aurrekontuaren arabera.

IV. Inguruabar horiek kontuan hartuta, Bilboko Udalak elkarte horri dirulaguntza izenduna ematea aurreikusi du 2020ko gastu arruntei aurre egiteko.

V. Horretarako, aldeek Lankidetza Hitzarmen hau sinatzea adostu dute.

**BALDINTZAK**

**BAT**.- HELBURUA.- Hitzarmen honen helburua da Bilboko Udalaren eta Bilbao Bizkaia Museoak, S.L.ren artean garatuko den lankidetza arautzea, Udalak erakunde horri gastu arruntetarako emango dion diru-laguntza izendunaren ondorioz. Diru-laguntza hori 2020ko jarduera garatzeko izango da.

Entitate onuradunak urteko jarduerak 2020ko jardueren proiektuaren eta urte horretarako aurrekontuaren arabera gauzatu beharko ditu Elkarteak agiri horiek aurkeztu ditu eta Hitzarmenaren I. eta II. eranskinetan daude.

Hitzarmen honetako eranskinak hitzarmenaren atalak dira eta harekin batera sinatu beharko dira.

**BI**.- UDALAREN EKARPENA.- Bilboko Udalak 1.030.891,00 euroko dirulaguntza izenduna emango dio entitateari, 2020rako jardueren programa gauzatzeko. Diru-laguntza hori udalaren 2020ko aurrekontuaren 2020 51000 33310 4350400 partidaren kargura egingo da.

Diru-laguntza hau erakundearen urteko ustiapen defizita estaltzeko ematen da. Hortaz, diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango defizita baino handiagoa. Hori gertatuko balitz, soberako kopurua Bilboko Udalari itzuli beharko zaio.

III. Que para estos fines, la arriba mencionada entidad tiene previsto desarrollar en el 2020 sus actividades conforme al presupuesto y proyecto que se adjunta al presente Convenio.

IV. Que teniendo en cuenta estas circunstancias, el Ayuntamiento de Bilbao ha contemplado la concesión de una subvención nominativa a la referida entidad, para gastos corrientes del 2020.

V. Que a tal fin, las partes acuerdan la suscripción del presente Convenio de Colaboración con arreglo a las siguientes.

**CLÁUSULAS**

**PRIMERA.-** OBJETO.- El objeto del presente Convenio es regularizar la colaboración que se desarrollará entre el Ayuntamiento de Bilbao y Bilbao Bizkaia Museoak, S.L. como consecuencia de la subvención nominativa para gastos corrientes que el Ayuntamiento va a conceder a la referida entidad para desarrollar su actividad anual a lo largo del ejercicio 2020.

La entidad beneficiaria deberá desarrollar su actividad anual conforme al proyecto de actividades para el año 2020 y el presupuesto para dicho ejercicio presupuestario. Estos documentos, presentados por la Sociedad, figuran como Anexo I y II del Convenio.

Los Anexos indicados forman parte del Convenio, por lo que deberán firmarse junto a él.

**SEGUNDA.-** APORTACIÓN MUNICIPAL.- El Ayuntamiento de Bilbao se compromete a aportar 1.030.891,00 € como subvención nominativa a la entidad para que ésta pueda desarrollar su programa anual de actividades en el año 2020, con cargo a la partida 2020 51000 33310 4350400 del presupuesto municipal de 2020.

Esta aportación se concede para cubrir el déficit de explotación de la entidad durante el año, por lo que el importe de la subvención no podrá resultar superior a dicho déficit. Si se produjera dicha circunstancia, la diferencia deberá reintegrarse al Ayuntamiento de Bilbao.

Aipatutako ekarpena bateragarria izango da nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko organismoetako beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edota baliabideekin. Hala ere, laguntzen zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan diruz lagunduko den ekintzaren kostua baino, ez banaka hartuta ez beste laguntza, sarrera edo baliabideekin batuta.

La referida aportación será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales. No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere en cada caso el coste de los conceptos subvencionados.

**HIRU**.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.- Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta hitzarmenean ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa.

**TERCERA.-** GASTOS SUBVENCIONABLES.- Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

**LAU.-** ORDAINKETAK.- Hitzarmena sinatu ondoren egingo dira ordainketak. hiruhilekoetako ordainketak izango dira eta diru-laguntzaren kopuruaren laurdena ordainduko da hiruhileko bakoitzean.

Salbuespen modura, ordainketa aldez aurretikoa izan daiteke, horrela egitea gomendatzen duten baldintzak egonez gero. Ordainketa horiek egiteko, erakunde onuradunari ez zaio bermea ezartzea eskatuko.

**CUARTA.-** ABONOS.- El abono de la aportación municipal se realizará, tras la formalización del Convenio, mediante abonos trimestrales, por el importe de un cuarto de la cantidad subvencionada.

No obstante, de forma excepcional se podrán adelantar dichos abonos, si concurren circunstancias que lo aconsejen. Para efectuar los abonos, que podrán ser anticipados, no se exigirá a la entidad beneficiaria la constitución de una garantía.

**BOST**.- AZPIKONTRATAZIOA.- Onuradunak jarduera osoa edo zati bat azpikontrata dezake.

Beste batekin hitzartutako jarduerak diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20 baino handiagoa denean eta zenbateko hori 60.000 €.000 euro baino handiagoa denean, erakunde onuradunak kontratu idatzia sinatu beharko du hornitzaile horrekin; kontratu hori formalizatzeko, Udalak baimena eman beharko du aldez aurretik.

Diruz lagundutako jarduerok osorik edo zati batean gauzatzeko, ezingo da inolaz ere itunik egin Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako debekuetako baten barruan

**QUINTA.-** SUBCONTRATACIÓN.- El beneficiario podrá subcontratar, total o parcialmente, la actividad.

Cuando las actividades concertadas con un tercero excedan del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000€, la entidad beneficiaria deberá suscribir un contrato por escrito con ese proveedor, cuya formalización precisará la autorización previa del Ayuntamiento.

En ningún caso podrá concertarse la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art. 13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con el

dauden pertsonekin edo erakundeekin, diru-laguntzaren jasotzailearekin lotura duten pertsonekin edo erakundeekin (Lege horretako Arautegiaren 68.2 artikuluan dago zehaztuta zeintzuk diren loturak) eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7 artikuluan adierazitako gainerako pertsonekin.

beneficiario (considerándose que existe vinculación en los casos recogidos en el art. 68.2 del Reglamento de dicha Ley), ni con las demás personas previstas en el artículo 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

**SEI**.- BESTE BETEBEHAR BATZUK.- Aurreko baldintzan adierazitako betebeharraz gainera, aldeek beste hauek izango dituzte:

- Hitzarmen honen bidez diruz laguntzen diren jardueren berri emateko entitateak egiten dituen publizitate- eta zabalkuntza-ekintza guztietan Bilboko Udalaren parte-hartzea adieraziko du, kasu bakoitzean egoki den erara, eta beti ere udalaren logoa erabilita.
- Jendaurrean egiten diren komunikazioetan euskara zuzen eta egokia erabiliko dela bermatuko da. Komunikazio- eta publizitate-ekitaldi guztietan gaztelania eta euskara erabiliko dira.
- Diruz lagundutako programaren barruan antolatzen diren jardueretan udalaren ordezkariei sartzen utziko zaie.
- Jasotzaileak nahitaez jakinarazi beharko du beste laguntzarik jasotzen badu helburu bererako.

**SEXTA.-** OTRAS OBLIGACIONES.- Además de la obligación señalada en la cláusula anterior, la colaboración se atendrá a lo siguiente:

- En los actos de publicidad y difusión de las actividades de la entidad se indicará la participación del Ayuntamiento de Bilbao en la forma adecuada a aquella, con la inclusión en todo caso del logo municipal.
- Se garantizará el correcto y fluido uso del euskera en las comunicaciones que se hagan con el público. En todos los actos de comunicación y publicidad se utilizarán el castellano y el euskera.
- Se facilitará el acceso de representantes municipales a las actividades organizadas dentro del programa subvencionado.
- Se comunicará al Ayuntamiento de Bilbao la existencia de otras ayudas recibidas para la actividad subvencionada.

**ZAZPI**.- KOORDINAZIOA.- Kultura Sailak eta entiateak antolatzen dituzten kultur ekintzetan, programazioak koordinatzeko ahalegina egingo dute eta bakoitzaren kultur jarduerei buruzko informazioa emango diote beste aldeari.

Entitate onuradunak bermatuko du jarduera horien inguruko prentsaurrekoetan, protokolo-ekitaldietan, inaugurazioetan eta abarretan Bilboko Udalaren ordezkariak egongo direla.

Kultura Sailak eta entitateak aholkularitza eta laguntza emango diote elkarri helburu komunak betetzeko diren

**SÉPTIMA.-** COORDINACIÓN.- El Área de Cultura y la entidad intentarán coordinar sus programaciones en las actividades culturales que organicen, facilitando información sobre sus respectivas actividades culturales.

Por la entidad se asegurará la presencia de los representantes del Ayuntamiento de Bilbao en ruedas de prensa, actos protocolarios, inauguraciones,... que tengan relación con las citadas actividades.

El Área de Cultura y la entidad se prestarán asesoramiento mutuo y colaboración en el desarrollo de las actividades que responden a sus fines comunes en la medida de sus posibilidades.

jarduerak egiten direnean, ahal den neurrian.

**ZORTZI.-** PROGRAMA ALDATZEA.- Programan edozein aldaketa garrantzitsu eginez gero, aldez aurretik Bilboko Udalari eskatu beharko zaio idatziz, eta hark mean beharko du baimena beren-beregi.

Funtsezko aldaketak egiteko eskariak arrazoiturik egongo dira eta aurrekontuan eta kronograman izango duten eragina zehaztu beharko da. Gobernu Batzordeak Saileko ordezkaritzari eskumena ematen dio aldaketa horiek baimentzeko.

Funtsezko aldaketatzat jotzen dira honako hauek:

- Helburu orokorretan eta/edo zehatzetan egindakoak.
- Onartutako aurrekontuko partidetan % 20tik gorako aldaketak (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ez dute eraginik izango zeharkako kostuetan), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez dutenean.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea dakarrenean, Gobernu Batzordeak onartu behar ditu.

Diru-laguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen ez dituzten gainerako aldaketak justifikazioaren unean onartu ahal izango dira, betiere aldaketok onartzean beste batzuen eskubideetan kalterik egiten ez denean.

**BEDERATZI**.- JUSTIFIKAZIO-KONTUA.- Entitateak Bilboko Udalari aurkeztu beharko dio gastu arruntetarako emandako diru-laguntzen justifikazio-kontua.

Agiri hauek osatuko dute justifikazio-kontua:

a. Bilbao Bizkaia Museoak SLren urteko kontuak, kontu-ikuskariaren txostenarekin batera (Diru-laguntzei

**OCTAVA.-** MODIFICACIÓN DEL PROGRAMA. Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao quien deberá expresamente autorizarla.

Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

**NOVENA.-** CUENTA JUSTIFICATIVA.- La entidad deberá presentar al Ayuntamiento de Bilbao la cuenta justificativa de la subvención para gasto corriente regulada en el presente convenio.

La cuenta justificativa contendrá la siguiente documentación:

a. Las cuentas anuales de Bilbao Bizkaia Museoak S.L., con informe de auditor (art 80 del Reglamento de la Ley 38/2003, de

buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Arautegiko 80. artikulua).

b. Jardueraren memoria. Bertan azalduko dira egindako jarduerak eta lortutako emaitzak.

c. Diruz lagundutako zabalkunde-materiala, Bilboko Udalaren logotipoarekin.

Gastu arrunten diru-laguntzaren justifikazio-kontu hau Udalean aurkeztu behar da diru-laguntza jasotzen duen erakundearen gobernu-organoak 2020ko urteko kontuak onartu eta hilabete igaro baino lehen.

**HAMAR**.- INFORMAZIOA.- Entitateak Kultura Sailari bidaliko dizkio aipatutako programen oihartzuna ebaluatzeko informazioak eta datuak; horretarako, jardueraren memorian emaitzen adierazleak, prentsa-dosierrak eta abarrak sartuko ditu.

Adierazleek datu hauek erakutsiko dituzte, gutxienez:

- Museoetan izandako bisitari-kopurua.
- Jarduera-kopurua eta jarduera horietara joan diren pertsona-kopurua.

**HAMAIKA**.- DESEGITEA.- Hitzarmen hau desegiteko arrazoi izango dira:

- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea.
- Sinatzaileek, adostuta, hala egitea erabakitzea.
- Hitzarmenaren sinatzaile bakoitzak hartutako konpromisoak eta betebeharrak ez betetzea.
- Epaile baten ebazpenaz hitzarmena baliorik gabe uzten da.

**HAMABI**.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA.- Entitateak diru-laguntzaren zati bat edo kopuru osoa itzuli beharko du Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako kasuetan.

17 de noviembre, General de Subvenciones),

b. La memoria de actividad, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

c. Material de difusión de los programas subvencionados en el que figure el logotipo del Ayuntamiento de Bilbao.

La cuenta justificativa de la subvención para gastos corrientes deberá ser presentada al Ayuntamiento antes de que transcurra un mes de la aprobación de las cuentas anuales del 2020 por el órgano de gobierno de la entidad beneficiaria.

**DÉCIMA.-** INFORMACIÓN.- La entidad se compromete a remitir al Área de Cultura las informaciones y datos para evaluar la repercusión de los referidos programas, mediante la aportación en la memoria de la actividad de indicadores de resultados, dossieres de prensa,...

Los indicadores mostrarán, al menos, los siguientes datos:

- Número de visitantes de los Museos.
- Número de actividades y número de personas asistentes a esas actividades.

**UNDÉCIMA.-** RESOLUCIÓN.- Constituyen causa de resolución del convenio:

- Por el transcurso del plazo de vigencia del convenio.
- El acuerdo unánime de los firmantes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes del presente convenio.
- La decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

**DUODÉCIMA.-** REINTEGRO DE LA SUBVENCIÓN.- La entidad beneficiaria estará obligada a reintegrar total o parcialmente la subvención, si se produjera la circunstancia prevista en la cláusula segunda, segundo párrafo, y en los supuestos previstos en la Ley 38/2003, de 17 noviembre, General de Subvenciones.

Hala ere, entitateak gehiegizko finantzazioa lortzen badu diru-laguntza honen aurrekontu-ekitaldian, gehiegizko finantzazio hori aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko erabil ditzake, erakundearen patronoek horretarako baimena ematen badute.

No obstante lo indicado en el párrafo anterior, si la entidad beneficiaria obtuviera un exceso de financiación en el ejercicio presupuestario para el que se concede la subvención, podrá aplicar el exceso de financiación a la compensación de los resultados negativos de ejercicios anteriores, siempre que los patronos de la entidad así lo autoricen.

**HAMAHIRU**.- ARAUBIDEA.- Hitzarmen hau bere baldintzen arabera arautu eta interpretatuko da. Baldintzetan aurreikusita ez dagoen guztirako, diru-laguntza publikoak arautzen dituen legeriara joko da, bereziki Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrera eta hori garatu duten arauetara, batez ere 2006ko uztailaren 1eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arautegira. Horrez gain, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluen eta hurrengoen arabera eta toki-mailan aplikagarriak diren eta hitzarmenak erregulatzeko diren estatu zein autonomia-mailako bestelako xedapenen arabera ere erregulatuko da.

Hitzarmen hau interpretatzean, gauzatzean, desegitean edo hitzarmenaren eraginen inguruan sor daitezkeen gatazkak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren esku utziko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Hala ere, alde biek arbitrajera jo dezakete euren gatazkak konpontzeko, indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera.

Ados daudela agertzeko, alde biek hitzarmen hau sinatu dute, Bilbon, ….

**DECIMOTERCERA.-** NORMATIVA Y FUERO.- El presente convenio se regirá e interpretará conforme a las cláusulas contenidas en el mismo. Para lo que no esté previsto en ellas se atenderá a lo establecido en la legislación que regula las subvenciones públicas, en especial por Ley 38/2003, de 17 noviembre, General de Subvenciones, así como las normas que la desarrollan, en especial el Reglamento de dicha Ley, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio. Así mismo, se regirá por los arts. 47 y ss. de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y por cualesquiera otras disposiciones estatales o autonómicas reguladoras de los convenios aplicables al ámbito local.

Las cuestiones litigiosas que pudieran surgir en relación con la interpretación, ejecución, resolución y efectos de este Convenio se someten expresamente a la jurisdicción Contencioso-Administrativa, a tenor del art. 29 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. No obstante, las partes podrán acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente

Y en prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente Convenio, por duplicado, en Bilbao, a …………

BILBAO BIZKAIA MUSEOA, S.L.

Firmado/Sinatuta:
Sorkunde Aiarza Begoña

AYUNTAMIENTO DE BILBAO/BILBOKO UDALA

Firmado/Sinatuta:
Gonzalo Olabarria Villota